

infraganti

FRANCK DOLOSOR

Bidasoatik haragokoentzat Bidasoatik honantz gertatzen direnen berri telebistan ematen duena da. Ertz anitz ditu, baina, berriketari senpertarrak. Duela gutxi Gaskoi Akademiaren kide izendatu dute, maite dituen hizkuntza ugarien tartean dagoelako gaskoia. Liburu pare bat ditu idatziak eta beti dauka erronkaren bat esku artean.



Franck Dolosor, «bihotzeko senpertarra», egunero sartzen da telebistaz Euskal Herriko etxeetan. Denis LAFITTE

Bidasoatik harago-ko lau probintzietan Euskal Telebistako berriemaile gisa egin zen ezagun; zehazki, Bidasoatik honantz dauden hiru probintzietako berriak hedatzeagatik, Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoako gertakariak. Baina kazetari izateaz gain, proiektu dezentetan aritu izan da Franck Dolosor, Gernika Batailoia-aren dokumentalaren gidoa idazten edo Senpereko Matxin Irabola bertsolari handiari buruzko liburua egiten, adibidez. Ertz desberdin anitz ditu berriketari senpertarrak. «Donibane Lohizunen sor-

tu nintzen 1977an, ospitalea han baitzen, baina Senperen egin dut dena eta bihotzeko senpertarra naiz; Bilborekin egiten dut lotura, halere, nire semea han sortua baita, eta biziki maite dudana hiria da. Beraz, Senpereko auzo bilakatu zait Bilbo». Umorez aipatzen du azken esaldia, eta segidan lotzen da bere ibilbidearen zirriborro batzuk eskaintzera: «Telebistan agertu aitzin irratian ibili nintzen, Gure Irratian lehenik, eta Radio Euskadin gero lau urtez. Inma Alvarezek hemen zeukan korrespontsal postua utzi zuen eta haren ordeztatu nintzen telebistan, biziki gustura gainera. Ttipidanik biziki gustukoak izan ditut ko-

munikabideak, ikus-entzunezkoak bereziki, eta tresna baliosa iruditzen zait».

Telebistak bizi garen herrietatik ezezaguna den guztia gertuko herrien begietara eramateko balio duela azpimarratzen digu Dolosorrek, eta errealitate bat erakustez gain, berari ikasteko balio dio. «Egunero ikasten dut zerbait, norabait joaten naizenean, baina baita mintzatzen ari naizenean ere. Bestalde, xantza ukan dut, hau da, Sonia Hernandorekin lan egiteko parada ukan dut Radio Euskadin, enetzat gaztelarazko kazetari onenarekin, eta baita euskarazko onenarekin ere, Maddalen Iriarterekin». Azken horrekin bizitako momen-

tuak maitasunez ditu gordeak. «Maddalen telebistan ikusten nuen kazetari gisa lanean hasi aitzin, eta harekin lan egiteko desira nuen. Bere euskara maila eta azalpenak emateko gaitasunaz gain, dohain anitz zeuzkala ezagutu nuen gainera, beti laguntzeko prest zen, aholkuak emateko. Garai batean kalitate arduraduna zen, eta gero editorea, eta nolakoa! Denei ematen zien hitza, eta hori ez da beti gertatzen, gainera, okerren bat zelarik, biharamunean zuzenketak egiten zuen. Nahi nuke jakin kazetaritzan zenbatek egiten duten okerraren aitormena».

HIZKUNTZEN MAITALEA

2002an hasi zen Euskal Telebistan, eta hamabost urte berantago ilusio berarekin jarraitzen du. «Lau lankide gaude Baionan telebistarentzat, bi postu oso eta aldzika ari diren beste bi. As-telehenetik ostiralera emititzen da egiten dugun programa, 'Iparraldearen orena'. Hamar minutu irauten ditu, tira, oren batek hirurogei minutu ditu eta esperantza badugu egun batez hartara ailegatzea, baina bitartean biziki inportantea iruditzen zait zubi lana egitea, Euskal Herriaren osotasunean presente izatea hamar minutuz bada ere, Baionatik egindako programarekin, hemengo hizkeran, eta hemen gertatzen denaren berri emenez. Komenigarria litzateke, bestalde, Hegoaldean gertatzen dena laburpen modura frantsesez azaltzea hemen, gizartearen gehiengoak hizkuntza horretan egiten baitu egunerokoa, eta pentsatzen dut gauza anitz ulertzen lagunduko lukeela. Azkenik, nik ere erabili ditut 'han' eta 'hemen' terminoak, baina iruditzen zait gehiegitan baliatzen direla, Euskal Herria batasunean ulertzen dut, Nafarroa bizkar hezur duen herri bakar gisa».

Telebistan, Franck, gaztelaraz entzuten dute anitzek, eta euskaraz bestetzuak. Aurretiaz frantsesez ere aritua zen France Bleu irratian, eta ingelesa eta katalana ere menperatzen ditu. Bistakoa da hizkuntzak anitz maite dituela. Berriki, Amadeu Baris Baiona eta Aturri aldeko

Gaskoi Akademiaren idazkari nagusiak eta Guy Mondorge presidenteak akademiako kide izendatu dute Angelun. «Bi urte-tik behin kide berri bat sartzen dute akademian eta bazekiten interesa banuela gaskoiarekiko, erreportaje dezente egin baititut haren inguruan, eta emankizunetan gaskoia ere erabili izan nuen, eta biziki ongi jaso dute hori». Atentzioa ematen du hizkuntza horrengana Dolosorrek duen joerak. «Haur denboratik oroitzen dut gaskoia. Amak Radio Bayonne entzuten zuen, eta frantsesez ari ziren, baina baziren saio batzuk euskaraz. Goize-ro, bost minutuz aritzen ziren gaskoiez, eta hizkuntza hori biziki hurbil sentitzen nuen, frantsesaren eta gaztelera edo katalanaren nahasketa gisa; ez nuen osoki ulertzen, bistan da, baina banuen halako gertutasun bat. Maite nuen entzutea, eta lantzen hasi nintzen emeki-emeki; Gaskoi Akademian ikastaroak ematen dituzte, 1926an sortu zuten akademia, ikusten baitzuten gibelka ari zela gaskoia. Bi urtez ibili nintzen han, eta ohartu nintzen bestalde hemengo hizkuntza ere bazela gaskoia, bai historikoki, edo baita herrien izenekin ere, edo abizenekin».


Kuriosoa egin zaigu datu hori eta sakontzeko eskatu baino lehen hasi da gaia aletzen Franck Dolosor, maite dituen gaien aditua izateaz gain pasioduna dela agerian utziz. «Donostiako Morlans auzoa gaskoitik heldu da, edo Miramon adibidez, *mir* eta *mon* hitzetatik. 'Mendia' erran nahi du *mon* hitzak gaskoiz, eta Bardozen ere bada mendixka bat Miramon deitzen dena. Abizen anitz dira hemen inguruan gaskoitik heldu direnak, %40 inguru, eta euskararekin antzekotasuna dute; guk Etxegoien edo Etxeberria ditugun bezala, hau da, tokiari aipamen egiten dioten abizenak, gaskoitik heldu direnekin ere pasatzen da, Amaia Riouspeyrous kantariarenak, adibidez, 'erreka' eta 'harria' erran nahi du. Frantziako Bankuaren eta FMiren zuzendari nagusi izandako Michel Camdessus baionarraren abizena,

berriz, Landagoien litzateke. Hor daude ere Camblong, Duprat...».

Ikasten eta ikertzen jarraitze-ko desira agertzen du Dolosorrek, gaskoia osoki menperatzen ez duela aitortuta. Baina jakinduria handia nabarmentzen zaio. «Historiari erreparatzen bazaio, gaskoia baliatzen zuten gure auzokideek, Landetakoek edo Biarnokoek, baina ez heiek soilik, baizik eta gisa berean biziki hedatua zen gure lurretan. Gaur egun ere, Lapurdi iparralde eta Nafarroa Behereko iparraldean kolegioetan irakasten da, eta badira hiztunak Barboze, Bidaxune, Akamarre, Erango, Gixunen... Baiona-Angelu-Biarritzen ikerketa soziolinguistikoa egin zen 2001ean eta herritarren %26k erantzun zuten ulertzen zutela gaskoia, eta, %10 pasak, aldiz, mintzo zutela».

Baiona gaskoia dela aipatzen du anitz jendek, ez euskalduna, eta tira, galdera luzatu behar genion Dolosorri. «Nahasketa handia da. Berez Euskal Herriko hiria da, baina kultura gaskoia izan duena; hizkuntza garrantzitsuena, ofiziala, gaskoia zen, euskarak nehoiz izan ez duela onarpen hori. Frantziako katedral guztietan mezak latinez idatziak zeuden, eta, Baionakoa, gaskoiz. Badut anekdota bat horren inguruan, Lehen Mundu Gerrako erakusketa bat egin zutenean, argazkietan baionar soldaduak ageri ziren eta haiek gaskoiz idatzita zuten 'gu baionarrak gara'. Baina euskaldunak ere joan ziren Baionara bizitzera, eta beren presentzia indartu dute denbora zehar. Jean Grenetek erraten zuen ezin zela deus egin euskararen alde, Baiona gaskoia zela, baina euskarak ikastolak, euskaltegiak, hedabideak sortu ditu eta gaskoia bi mundu gerrek anitz kaltetu zuten, apaltzen joan da presentzia eta galtzen joan da». Eta gainbehera hasi zen. «Marguerite Ditcharry ezagutzeko parada ukan nuen nik, eminentzia bat gaskoiari lotutako edozein gaiekin, orain gutxi hil da 97 urterekin. Bost urterekin etorri zen Baionara bizitzera, eta hura gaskoi gaskoia zen, zu eta ni euskaldu-

nak izan gaitezkeen bezala. Eta erraten zidan, 'nik ez dut ulertzen, hemen, Baionan, gu ginen hautetsiak, merkataria, medikuak, notarioak, eta zuek, euskaldunak, laboraria, herritar xumeak, eta dena aldatu da



«Haur denboratik oroitzen dut gaskoia. Amak Radio Bayonne entzuten zuen. Goizero, bost minutuz aritzen ziren gaskoiz, eta hizkuntza hori biziki hurbil sentitzen nuen»

«Donostiako Morlans auzoa gaskoitik heldu da, edo Miramon adibidez, 'mir' eta 'mon' hitzetatik. 'Mendia' erran nahi du 'mon' hitzak gaskoiz. Abizen askok ere jatorri gaskoia dute»

denbora gutxian'. Ez zuen gaiztoki erraten hori, baizik azalpen modura, eta errespetuz. Nik oroitzen dut gu jende notable horien morroi ginela, eta heiek zutela indar posizioa; geroztik, ordea, haustura gertatu da, eta

guk gure ttipitasunean eutsi diogu euskarari, eta baita zabaldu ere. Gero, gertatzen da izan Bizkaian, Lapurdin edo Nafarroan, euskara euskara deitzen dela, eta gaskoia dei daiteke tokia- ren arabera biarnesa, aranera, bigorresa... Baina hizkuntza bera da, eta beharbada horrek zailtasuna ematen du orokorki zaindua izan behar delarik. Halere, badakit nik ez dudala gaskoia salbatuko, anitz egin behar dela zentzu horretan, baina ongi litzateke gure hizkuntza bezala ikusi eta ahal dugun horretan laguntzea. Manex Pagolaren errana maite dut nik, hau da, hobe dugula denok zutik egon batzuk belauniko ikustea baino, eta betiko batzuk zutik, frantse-sari aipamen eginik».

Baina euskara da Dolosorren pasio lehena eta harekin eman ditu lanak argitara. «Xantza handia dut euskaraz bizitzea posible baitut, eta maleruski ez zaio hala gertatzen jendearen gehiengoari hemengo lurretan. Senperen, adibidez, azken merkataria euskaldunak erretreta hartu du, beraz, erraz irudika daiteke ogia erosteko edo eguneroko gauzak eskuratzeko ez dela euskaraz egin ahal. Bestetik, biziki apal aritu gara Lapurdi kostaldean, hau da, ez dugu ohiturarik euskaraz aritzeko lehen kolpean. Hendaia heldu den gaztelania hiztunak konplexurik gabe erraten du 'dame un pan', baina guk ez dugu euskaraz eskatzen, eta, bestetik, euskara espainolarekin lotzen du jende anitzek hemen. Baina kontua da ez dutela euskara aditzen, eta ez aditzeak ezezaguna bihurtzen du hizkuntza. Euskara defendatzea defendatzeagatik ez dut maite, baizik balio bat duelako, eta balio lehena erabilpena da».

SENPEREKO MATXIN IRABOLA

Ipar Euskal Herriko bertsolari-tza beti lotu izan da Ahetzeko Mattin Treku eta Urepeleko Xalbador handiarekin, baina egun bezala orduan ere baziren biziki bertsolari onak, Senpereko Matxin Irabola da haietariko bat, askorentzat ezezaguna izan arren bere garaiko onenetarikoa

izan zena. 1935ean Donostian jokatatu zen lehen bertso txapelketan bigarren saria eskuratu zuen Basarriren ondotik. Dolosorrek liburua argitaratu zuen hari buruz 2000. urtean. «Ez zen erraza izan liburu honen osatzea, oro har, informazio arras guti baita Matxini buruz. Bere denborako jende anitzek bezala, lapurtar honek ez zakien izkiriartzen ez eta irakurtzen ere. Ondorioz, bere bertsoen arrasto guti gelditzen da. Baina garai hartan euskal kulturaz axola zirenak ohartuta zeuden maila handiko bertsolaria zela eta artikulu eta argazki zombait ongi gorde zituzten, eta horiek oro biltzea eta agerraraztea zor diogu Senpereko seme honi».

Ez da hori Dolosorrek idatzita-ko liburu bakarra, Senperetik Senperera bilduma argitaratu baitzuen lehenago. «Liburuan hemezortzi lagun mintzatzen dira: bederatzi emazte eta bederatzi gizon. Denak Senperen sortu dira hiru salbu: bi nafarrak dira, baina ongi ordezkutzen dute Lapurdin finkatua eta integratua den nafar multzoa, eta bertze bat baxenabartarra da. Lekukotasun bilduma honen birtatez jakinen du senpertarrak duela urte batzuk arnoa eta ez-tia egiten zirela kasik etxe guztietan, haur batzuk lanean hasten zirela zazpi urterekin eta ogi jotzeak Senpereko bestak baino handiagoak zirela!».

Dolosor geldirik egoteko ez dela oso argi uzten du Senperen Gaindi proiektuak ere, bere sinadura baitarama. «Belaunaldi desberdinetako hogeita hamar bat senpertar ingururen erretratu saila biltzen du. Bertsolariak, laboraria, saltzaileak, irakasleak, dantzariak, kantariak, artistak, berriketariak, kirolariak, pilotariak, apez eta serorak... Gizon eta emazteak, adin batekoak edo arrunt gazteak, euskaldunak edo erdaldunak, denek dute beren tokia liburuan. Lagun bakoitza argazki batekin eta euskarazko testu batekin aurkezten da. Beren alde ezagunez gain, alde ezezagunagoak eta anekdotak aipatzen dira».